

## **2016-2017 kurtsoa martxan da**

2016/09/06

2016-2017 kurtsoa martxan da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan. Lehen 3 egun hauetan, harrera plana edukiko dute, unibertsitatea, eskola politeknikoa eta hezkuntza ereduak gertutik ezagutzeko aukera izanik. Baina alde formalaz gain, ikasleek elkar ezagutu eta kurtso osoan zehar beraiekin izango diren irakasleak ezagutzeko aukera izango dute. Horretarako talde lanak, tailer ezberdinak, eskolako instalakuntzak ezagutzeko ginkana bat, etab. egiteko aukera izango dute. Esperientzia guztiak elkarbanatzeko gaur eta bihar ikasle zein irakasleentzako lunch bat antolatu da eguerdi partean.

Ongi etorri unibertsitatera eta ongi etorri Goi Eskola Politeknikora!

